NEGUAZ PRIMADERA

Doinuaren jasotzailea: Aita Donostia.
Bertso honen egilea: Joan Batista Elizanburu (1828-1891 Sara, Lapurdi).

Bertsoaren berri

"Apexa eta lorea" bertso sortak azaltzen du apexa (edo tximeleta) eta lorearen arteko maitasuna. Goizero, eguzki argitan, tximeleta hegan joaten da lorez lore eta iluntzean, eguzkia sartzean, tximeleta itzuli egiten da hain maitea duen lorearengana. Loreak ere nahi luke apexarekin hegan joan baina lurrari lotuta dago.

Bertso sorta hau 1862ko Lore Jokoetan aurkeztu zuen Elizanburuk.

Neguaz primadera zenean jabetu
sasi baten hegian apexa zen sortu
leku berean baitzen lorea gertatu
gaixoek elgar zuten bihotzez maitatu.